

BESTELAKO XEDAPENAK

LAN ETA ENPLEGU SAILA

6481

EBAZPENA, 2021eko abenduaren 13koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen baita administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 13ko bileran hartutako erabakiaren bidez, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia onartu du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan. Maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartutako Lanbideren Estatutuen 10.2 artikulua o) letran xedatutakoaren arabera, organismo autonomo horren zuzendari nagusiari dagokio deialdi hori argitaratzea.

Azaldutakoagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatzeko Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2021eko abenduaren 13ko batzarrean hartutako erabakiaren bidez onetsitakoa. Ebazpen honen eranskin gisa jaso da erabaki hori.

Bigarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak laguntza-deialdia onartzeko hartu duen erabakiak ondorioak izango ditu ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hirugarrena.– Deialdia onartzen duen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Erabakiaren aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena aldizkari horretan argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 13a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
MARÍA GLORIA MÚGICA CONDE.

2021eko abenduaren 31, ostirala

ERANSKINA

LAGUNTZEN DEIALDIA, EUOPAR BATASUNAREN NEXTGENERATIONEU FUNTSAK
FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN
BARRUAN, «ADMINISTRAZIO PUBLIKOETAN LEHEN LANBIDE-ESPERIENTZIA
IZATEKO PROGRAMA» FINANTZATZEKO

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana Europar Batasunean sustatutako tresna bat da, COVID-19aren pandemiaren inpaktuak murrizteko eta gizartea eraldatzeko. Helburutzat du ekoizpen-sarea modernizatzea, «deskarbonizazioa» eta ingurumenarekiko errespetua sustatzea, ikerketarako eta prestakuntzarako egituren eta baliabideen digitalizazioa eta hobekuntza bultzatzea, gizartea prestatuagoa egon dadin pandemia bezalako arazoei aurre egiteko, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritako esparruarekin bat eginda.

Zehazki, Europako analisiak gazteen langabezia aipatzen du erronka gisa, arrisku bat baitakar belaunaldien arteko orekarako, eta gizartean eta lanean baztertuta egoteko arriskua eragiten baitu egoera ahulenean dauden kolektiboentzat. Arreta berezia jartzen da luzaroko langabezian eta genero-desberdintasunaren iraunkortasunean.

Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, «Zaintza-lanen eta enplegu-politiken ekonomia berria» VII. palanka-politikaren barruan, 23. osagaiak —«Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak»— Espainiako lan-merkatuaren egiturazko erronkak aztertzen ditu, besteak beste, egiturazko langabezia eta gazteen langabezia murriztea eta enplegurako politika aktiboen eraginkortasuna eta efizientzia areagotzea.

Hala, 23. osagai horretan proposatutako erreformen eta inbertsioen barruan, 1. inbertsioa da «Gazteen enplegua», eta inbertsio horretan kokatzen da administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa. Programa horren babesean laguntza emateko oinarri arautzaileak urriaren 24ko TES/1152/2021 Aginduan ezarri dira.

Programa honen xedea da 16 urtetik gorako eta 30 urtetik beherako gazte langabetuak kontratatzea. Prestakuntzaren etapa amaituta izan behar dute, eta ezagutzak egiaztatuta izan behar dituzte. Programaren helburua da, administrazio publikoen arloko lan-kontratu baten bidez, lehen esperientziak izatea enpleguan, baita langilearen jokabidearekin lotutako abilezia sozialak eta profesionalak eskuratzea ere.

Lehen esperientzia izateko programaren bidez, trantsizio ekologikoarekin eta ekonomia berdearekin eta zerbitzuen digitalizazioarekin lotutako lanak egiteko lanpostuak beteko dira batez ere.

Laneko lehen esperientzia esanguratsua izateko zailtasunak kalte egiten die gazteei, lan-merkatuan goiz sartzea eragozten die eta haien garapen profesionala oztopatzen du, eta, ondorioz, pertsonala.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak garatutako toki- eta eskualde-mailako kontrataziorako laguntzen deialdietan parte hartu duten gazte langabetuen enplegarritasuna hobetzeko lortutako emaitza onak erakusten du EAEko eta tokiko sektore publiko instituzionalaren arteko lankidetzaren eraginkorra dela lehen esperientzia izateko helburua lortzeko.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiak proposatuta, organismo autonomo horretako Administrazio Kontseiluak, 2021eko abenduaren 13ko bileran, administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa finantzatzeko laguntzen deialdia

onetsi du, Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruan.

1. artikulua.– Laguntza-deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da urriaren 24ko TES/1152/2021 Aginduaren bidez araututako «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa» delakoaren barruko dirulaguntzak ematea Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko instituzionaleko –erkidegokoa eta tokikoa– administrazio publikoei eta entitateei, gazte langabetuak kontratatu ditzaten, gazte horiei enpleguaren arloko lehen esperientzia eta konpetentzia eta abilezia sozial eta profesionalak eskaintzeko, administrazio horiek ematen dituzten zerbitzuen barruan. Laguntza hauek Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan kokatzen dira.

Laguntza hauek ez dira estatu-laguntza bat Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuen (EBFT) 107. eta 108. artikuluetan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateak ez baitu lehia faltsutzen, ez eta lehia faltsutzeko mehatxurik ekartzen ere, zenbait enpresa edo ekoizpenen alde eginez, dirulaguntzen entitate onuradunak erkidegoko eta tokiko sektore publiko instituzionaleko administrazio publikoak eta organismoak eta entitateak baitira.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak eta finantzaketa.

1.– Deialdi honetan araututako laguntzak emateko, baliabide ekonomikoen zenbatekoa 7.516.326 euro da, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren 2022 ordainketa-kredituaren kontura, eta lotura dute Europar Batasunaren NextGenerationEU funtsak Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planarekin. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduak ezarri zuen aipatutako mekanismoa.

Laguntzen bolumen osoak ez du gaindituko aipatutako zenbateko hori edo zenbateko hori eguneratetik ateratzen dena, aurrekontu-aldaketarik onartzen bada indarreko legeekin bat, bereziki 2022an eta 2023an Euskal Autonomia Erkidegoari Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren barruko funts berriak transferitzen bazaizkio xede bererako eta laguntza hauek finantzatzeari lotutako ordainketa-kreditu berriak sortzen badituzte. Halakorik gertatuz gero, publiko egingo da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, zeina Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko baita.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura egiten diren gastu-espedituen aurretiko izapidetzea araupetzen duen Ogasun eta Herri Administrazioari sailburuaren 2007ko apirilaren 26ko Aginduaren 5.3 artikuluan jasotako ondorioetarako, deialdi honetan iragarritako dirulaguntzen ebazpenak emateko, kreditu egokiak eta behar bestekoak egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren 2022ko aurrekontu orokorretan.

3.– Etiketatze klimatikoari eta digitalari lotutako betebeharrak betetzeko, baliabide ekonomikoak hiru lerrotan banatuko dira:

a) % 20, 1.503.265 euro, ingurumena zaintzen eta leheneratzen laguntzen duten enplegu berdeen ildorako. Jarduketa-eremuak hauek dira, besteak beste: ekosistemak leheneratzera eta abere-ustiapenerako eredu ekologikoak eta jasangarriagoak ezartzera bideratutako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza; energiaren eta lehengaien kontsumoaren efizientzia areagotzeko jarduerak; berotegi-efektuko gasen isuriak murriztea; hondakinak eta kutsadura murriztea; ekosistemak babestea eta leheneratzea, eta ingurumenarentzat onuragarriak diren ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko prozesuak.

b) % 20, 1.503.265 euro, kompetentzia digitalen arloko lanpostuen ildoan, Europako Kontseiluak ezarritako herritarrentzako kompetentzia digitalen Europako Esparruarekin (DIGCOMP) bat etorrira.

c) % 60, 4.509.796 euro, enplegu orokorraren ildorako.

a) eta b) ildoetarako ezarritako baliabide ekonomikoak agortzen badira, c) ildorako aurrez ikusitako kredituaren kargura eman ahal izango dira enplegu berdeetarako eta kompetentzia digitalen arloko enpleguetarako laguntzak.

3. artikulua.– Dirulaguntzaren onuradunak.

1.– Deialdi honetan jasotako laguntzen onuradun izan daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, foru-aldundiak eta Euskal Autonomia Erkidegoko mankomunitateak, kua-drillak eta udallerriak, baita aurrekoen mendeko edo haiei lotutako EAEko eta tokiko sektore publiko instituzionaleko organismoak eta entitateak ere, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 82. artikuluan ezarritako Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Sektore Publikoko Entitateen Inbentarioan inskribatuta badaude.

2.– Entitate onuradunek eskakizun hauek bete beharko dituzte:

a) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izan behar dituzte.

Organo kudeatzaileak automatikoki egiaztatuko du zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla, dirulaguntza eman eta hura ordaindu baino lehen. Hala ere, eskatzaileak berriaz aurka egin diezaioke egiaztatze horri, eta, halakorik egiten baldin badu, baldintza hori betetzen duela egiaztatzen duten ziurtagiri eguneratuak aurkeztu beharko ditu.

b) Dirulaguntzak itzultzeko ordainketa guztiak egunean izan behar dituzte.

c) Ez dute izan behar zigor- edo administrazio-arloan dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zehapenik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera, edo Emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoaren arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

d) Ez dute egon behar Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluen 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako egoeretako batean ere, dirulaguntzen onuradun izateko baldintzei dagokienez.

3. atal honetan aurreikusitako baldintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egiaztatzen ez baditu, eskabide-inprimakian jasota dagoen erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira.

3.– Entitate onuradunak «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala erabat betetzen dituztela bermatu beharko dute, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko exekuzio-erabakian (Council Implementing Decision-CID) eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan ezarritakoarekin bat, baita hura garatzeko araudian ezarritakoarekin bat ere. Proiektuak diseinatu eta gauzatzeko fase guztietan bete beharko dira, modu indibidualean jarduketa bakoitzerako.

Ondorio horietarako, dirulaguntza-eskabidearekin batera, erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute I. eranskineko ereduari. Helbide honetan eskuratu daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/1209801>

4.– Halaber, entitate onuradunek konpromisoa hartu beharko dute behar diren eskubideak eta sarbideak onartzeko, Batzordeak, Iruzzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

Konpromiso hori dirulaguntza-eskabidearekin batera aurkeztu beharko dute, II. eranskineko ereduari. Helbide honetan eskuratu daiteke: <https://www.euskadi.eus/servicios/1209801>

4. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen jarduketak.

1.– Deialdi honen babesean, dirulaguntza jaso daiteke 6. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsonak kontratatzeagatik, praktikaldiko kontratuaren bidez, enpleguaren arloan lehen espezializazioak izan ditzaten eta kompetentzia eta abilezia sozialak eta profesionalak eskuratu ditzaten.

Edonola ere, enplegu-eskaintzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kudeatuko ditu.

Horrez gainera, kontratatutako pertsonen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko orientatzaile baten laguntza izango dute zerbitzua ematen duten bitartean, betiere enplegu-eskaeran alta emanda badaude.

2.– Programa honen etiketatze berde eta digitalarekin lotutako betebeharrak betetzeko, hiru kontrataziotarako dirulaguntza eskatzen bada, haietako bat, gutxienez, enplegu berdeari edo kompetentzia digitalen arloko enpleguari lotuta egon beharko da. Lau kontrataziotarako eskatzen bada, gutxienez haietako bat enplegu berdeari lotuta egon beharko da, eta beste bat kompetentzia digitalen arloko enpleguari. Bost edo gehiagorako eskatzen bada, % 20, gutxienez, enplegu berdeari lotutakoak izan beharko dira, eta % 20, kompetentzia digitalen arlokoak. Ehuneko horiek aplikatuta dezimalak dituen zifra bat ateratzen bada eta digitua 5 edo hortik gorakoa bada, goiko zenbaki osoa hartuko da.

Entitate batek eskabide bat baino gehiago aurkezten badu, guztira egingo dituen kontratazioen kopuru osoa hartuko da kontuan baldintza hau betetzeari dagokionez.

Entitate eskatzailearen jardura ekonomia berdearekin edo digitalarekin lotuta badago, ez da eskatuko 2. apartatu honetan xedatutakoa betetzeko, eta dirulaguntza eskatzeko aurkeztu dituen kontratazio guztiak enplegu berdekoak edo kompetentzia digitalen arlokoak direla ulertuko da.

3.– Kontratuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Kontratutako pertsonen entitate onuradunen eskumeneko eginkizunak edo lanak egin beharko dituzte.

b) Kontratutako langabetuen lanbide-heziketa eta -praktika sustatuko dira. Horretarako, kontratazioak kontratatutako pertsonaren prestakuntza akademikoaren eta/edo profesionalaren araberrako lanpostuetarako izan beharko dira.

c) Kontratuen gutxieneko iraupena hamar hilabetekoa izango da, eta gehienekoa, berriz, hamabi hilabetekoa. Lanaldia denbora osokoa izango da.

d) Diruz lagundutako kontratuak indarrean dauden bitartean, entitate onuradunek informazio profesionala, orientazioa edo prestakuntza eman beharko diete hartzaileei, eta lan-arriskuen prebentziorako dagozkien betebeharrak guztiak bete beharko dituzte. Horrez gainera, ezagutza digitalak eguneratzearekin lotutako neurriak garatuko dira modu egokian.

e) Kontratu hauei urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren testu bateginaren 11.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaie.

f) Nolanahi ere, kontratazio hauen bidez ezin izango dira bete entitate kontratatzaileetan dauden eta aurrekontu-zuzkidura duten egiturazko plazarak, lanpostuen zerrendan, plantillan edo giza baliabideak antolatzeko beste tresna baten barruan sartuta egon edo ez.

4.– Programa honen barruan, ezin izango dira diruz lagundu ondoren aipatzen diren jarduerekin lotutako lanpostuak, haien finantzaketa baztertuta baitago Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean:

- 1) Erregai fosilekin lotutakoak (geroagoko erabilera barne).
- 2) Isuri-eskubideen merkataritza-araubidearen (ETS) esparruko jarduerak, berotegi-efektuko gasen isuri proiektatuak doako esleipenerako ezarritako erreferentzia-balioak baino nabarmen txikiagoak ez badira.
- 3) Hondakinen zabortearen instalazioetan, tratamendu biologiko mekanikorako (MBT) instalazioetan edo hondakinen tratamendurako erraustegietan egindakoak.
- 4) Jarduerak zeinetan hondakinen epe luzerako ezabaketak ingurumeneari epe luzera kalteak eragin baititzake (adibidez, hondakin nuklearrak).

5. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.– Gazteak kontratatzeagatik, soldata-kostuek jaso ahal izango dute dirulaguntza, Gizarte Segurantzari dagozkion kontzeptu guztien ondoriozko kotizazioa eta norbera babesteko ekipamenduen (NBE) kostuak barne.

Soldata-kostuei dagokienez, kontratatutako pertsonaren ordainsaria ezingo da izan urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 11.1 artikuluan e) atalean aurreikusitako zenbatekoa baino txikiagoa, ezta une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata baino txikiagoa ere.

Bestalde, Norbera Babesteko Ekipoek (NBE) diruz lagun dezaketen gastuaren gehieneko zenbatekoa urtean 369,07 eurokoa da 9-5 kotizazio-taldeetan kontratatutako pertsonentzat, eta urtean 553,60 eurokoa 4-1 kotizazio-taldeetako kontratatutako pertsonentzat.

2.– Aurreko atalean jasotako gastu-kontzeptu guztiak direla-eta emango den dirulaguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko, hauek hartuko dira kontuan: aurreztutako proiektuan kontratatzeko jasotzen den pertsonen kopuruari buruzko aurreikuspenak, pertsona bakoitza zenbat hilabeterako kontratatuko den eta ondoren azaltzen den modulua, Gizarte Segurantzako kotizazio-taldearen arabera aplikatzekoa:

– A modulua - 9. kotizazio-taldetik 5.era: 1.783,83 euro kontratatutako pertsona bakoitzeko eta hilabete bakoitzeko (21.405,94 euro kontratazio-urte bakoitzeko).

– B modulua - 4. kotizazio-taldetik 1.ra: 2.675,74 euro kontratatutako pertsona bakoitzeko eta hilabete bakoitzeko (32.108,92 euro kontratazio-urte bakoitzeko).

6. artikulua.– Kontratutako pertsonen betekizunak.

Kontratzen diren pertsonak betekizun hauek bete beharko dituzte kontratuaren hasieran:

a) 16 urte baino gehiago eta 30 baino gutxiago izatea.

b) Euskal Autonomia Erkidegoan bizitzea.

c) Langabea izatea eta Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuan alta emanda egotea enplegu-eskaintzaile gisa.

d) Lan-kontratu bat praktikaldian hitzartzeko betekizunak betetzea, Langileen Estatutuaren 11.1 artikuluan ezarritakoarekin bat.

7. artikulua.– Eskabideak, dokumentazioa eta aurkezteko epea.

1.– Dirulaguntza-eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoren bidez aurkeztu beharko dira, <https://euskadi.eus/egoitza-elektronikoa> webgunean, eta helbide horretara sartzeko esteka bat egongo da Lanbideren web-orrian (<https://www.lanbide.euskadi.eus>).

Izapidetzeko jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak dituen administrazio-prozeduraren informazio-fitxa <https://www.euskadi.eus/servicios/1209801> helbidean dago, eta fitxa horren bitartez sartu ahal da eskabidea egiteko inprimakian.

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nire-karpeta/web01-sede/eu>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

Helbide honetan eskuratu daitezke Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

2.– Eskabideak aurkezteko epea 2022ko otsailaren 1etik 2023ren urriaren 31ra izango da.

3.– Eskabidearekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Bete nahi diren lanpostuak azaltzen dituen memoria, non alderdi hauek zehaztuko baitira: 2.3 eta 4.2 artikuluekin bat etorruta, enplegu berdeak ala konpetentzia digitalen arloko enpleguak diren, egin beharreko jardueren ezaugarriak zein diren eta eskatutako titulazioarekin duten lotura, kontratuen iraupena eta kopurua, eta egingo diren kontratazioen soldata-kostuen inguruko aurreikuspenak.

Edonola ere, memorian berariaz aipatu beharko da 4.3.f) artikuluan ezarritakoa betetzen dela.

b) 3.3 artikuluan aipatzen den «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) betetzen dela dioen erantzukizunpeko adierazpena, I. eranskineko erduan.

c) 3.4 artikuluan aipatzen den eskubideak eta sarbideak emateko konpromisoa, II. eranskineko erduan.

d) Datuen lagapenari eta tratamenduari buruzko adierazpena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikuluan 2.d) eta 3. apartatuetan xedatutakoari dagokionez. III. eranskineko ereduan aurkeztuko da.

e) Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planean ezarritako zeharkako printzipioak bete-teari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, IV. ereduan.

3. apartatu honetan aipatzen diren ereduak <https://www.euskadi.eus/servicios/1209801> helbidean eskuratu ahal dira.

4.– Eskabideak ez badaude behar bezala beteta, edo ez bada aurreko apartatuan adierazitako dokumentazio guztia aurkezten horrekin batera, entitateari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Gainera, jakinaraziko zaio hori egiten ez badu haren eskabidean atzera egin duela ulertuko dela, eta Administrazioak eskabide horri buruzko ebazpena eman beharko du espresuki, bai eta jakinarazi ere.

8. artikulua.– Ebazteko eskumena duen organoa, emakida-prozedura, ebazpena, epeak, gora jotzeko errekurtsua eta publikotasuna.

1.– Eskabideak kudeatzeko, izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna Laneratzea Aktibatze Zuzendaritza da.

2.– Deialdi honetako dirulaguntzak lehiarik gabeko prozeduraren bidez izapidetuko dira.

Horrenbestez, aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira eskabideak, eta hurrenkera horretan emango zaizkie dirulaguntzak deialdiko baldintzak eta eskakizunak betetzen dituzten guztiei, harik eta finantzaketarako funtsak amaitu arte.

2.1 artikuluan aurreikusitako aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, edo 2022ko ekitaldian zuzkidura hori handitzearen emaitza bada, laguntza berriak emateari utziko zaio, eta prozesua berriz hasiko da hura finantzatzeko aurrekontu-kreditua handitzea ahalbidetuko duten funts berriak jaso ondoren. Baliabide ekonomikoak behin betiko agortzen badira, dirulaguntzak ukatuko zaizkie egi-teke dauden eskaerei.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Lan Aktibazioko zuzendariaren ebazpen baten bidez, EHAAn argitaratuko da laguntza berriak gelditu eta, hala badagokio, berriro emango direla, dago-kion aurrekontu-kredituaren zenbatekoa adierazita, bai eta laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoak behin betiko agortu direla ere.

3.– Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, eskabidea aurkezten den egunetik aurrera. Epe hori igaro ondoren ebazpen espresurik jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsizat jo ahal izango da.

4.– Ebazpena ematekoa bada, «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa» Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren barruan finantzatuta dagoela zehaztuko da, eta elementu hauek izango ditu gutxienez:

- a) Emango den dirulaguntzaren zenbatekoa eta kontratatu beharreko pertsonen kopurua.
- b) Kontratuko diren pertsonen lanbide-kategoria, lanbide-taldea edo lanbide-maila.
- c) Pertsona bakoitzari egingo zaion kontratuaren iraupena.
- d) Egingo diren kontratazioen kokapen geografikoa.

5.– Entitate onuradunek jaso badituzte ezaugarri bereko beste laguntza edo dirulaguntza batzuk Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren edo haren organismo autonomoen eskutik, eta laguntza horien inguruko itzulketa- edo zehapen-prozesuren bat izapidetzen ari bada, prozesu horrek amaituta egon behar du erakunde horiei dirulaguntza esleitzeko edo esleitura dutenei dagokiena ordaintzeko.

6.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpenek ez dute amaitzen administrazio-bidea, eta haien aurka gora jotzeko errekurtsioa jarri ahal zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuta.

7.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta emakida-ebazpenak espresuki eta banaka jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpen bidez, arau honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun diren entitateen zerrenda, eta zer zenbateko jasoko dituzten ere adieraziko da. Halaber, erakunde bati emandako dirulaguntza aldatzea erabaki bada, inguruabar hori ere adieraziko da, eta berariaz aipatuko da Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan finantzatutako programa bat dela.

9. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko modua.

1.– Ebazpena eman ondoren, dirulaguntzaren zenbateko osoaren ordainketa aurreratua egingo da. Ez da bermerik eratu beharko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren alde.

Dirulaguntzaren izaera aintzat hartuta, egindako funts-aurrerakinek sortutako finantza-etekinek ez dute handituko emandako dirulaguntzaren zenbatekoa.

2.– Administrazioak laguntzak ordaindu ahal izan ditzan, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren Hirugarrenen Erregistroan sartuta egon behar du entitate eskatzaileak.

Entitatea ez badago erregistratuta, edo Ekonomia eta Ogasun Sailaren Hirugarrenen Erregistroan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, helbide honetan egin ahal izango du: <https://euskadi.eus/hirugarrenak>

10. artikulua.– Programan parte hartzen duten gazteak aukeratzeko eta aukeratutakoak kontratatzeko prozedura.

1.– Dirulaguntza jaso dezaketen praktikaldiko kontratuak egiteko, entitate onuradunek enplegu-eskaintza kudeatzeko eskabide bat aurkeztu beharko dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan. Eskabide bat aurkeztu beharko da beteko den lanpostu-profil bakoitzeko, eta dirulaguntzak emateko ebazpena jakinarazi ondoren aurkeztu beharko da, kontratuak hasi baino hamabost egun lehenago, gutxienez.

Enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskabideak jasotzen dituen bulegoak erregistratuko ditu, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartekaritza-sisteman identifikatuta geratuko dira.

Ez da aplikatu behar administrazio publikoetako langileak aukeratzeko prozeduretarako ezarritako araudia, nahiz eta entitate onuraduna administrazio publiko bat izan. Azken kasu horretan, aukeratutako pertsonak ez dira joko erakundeko plantillako edo lanpostuen zerrendako langiletzat, eta, beraz, ez da beharrezkoa izango aurretik lan-eskaintza publikorik egitea.

Era berean, deialdi honen bidez ezin izango dira bete administrazioaren barruko egiturako lanpostuak, 4.3.f) artikuluan xedatutakoaren arabera.

2.– Eskaintzak hautagaitzen parekatze automatikoaren bidez kudeatuko dira, eta Lanbideren webgunean argitaratuko dira: <https://www.lanbide.euskadi.eus>

3.– Dirulaguntza jaso dezaketen praktikaldiko kontratuak betetzeko hautagaien azken aukeraketa entitate onuradunak egingo du, irizpide hauek kontuan hartuta:

a) Eskaintako lanposturako egokitzapen handiagoa izatea.

b) Garatu beharreko gaiarekin lotutako ikasketa bereziak izatea.

c) Curriculumaren eta hautagaien balorazioa egiteko, curriculum vitae itsua erabili beharko da eta inolako diskriminaziorik ez egiteko printzipioa bermatuko da.

d) Eskabidea egiten duenean, entitate onuradunak lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko eta genero-berdintasuna bermatzeko jada ezarrita dituen neurriak.

4.– Kontratuak bi hilabeteko epearen barruan hasi beharko dira, dirulaguntza emateko ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, ezinbesteko arrazoiak edo behar bezala justifikatutako arrazoiak daudenean salbu. Kasu horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendu beharko du atzerapena. Edonola ere, kontratuak hasteko epea 2023ko abenduaren 31n amaituko da.

5.– Entitate onuradunak kontratuak hasi izanaren berri emango dio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, azken kontratua hasi eta 15 egun balioduneko epearen barruan, eta kontratatu dituen pertsonen kopurua adieraziko du.

Benetan kontratatutako pertsonen kopurua eskabidean eta laguntza emateko ebazpenean aurrez ikusitakoa baino txikiagoa bada, erakunde onuradunak egin gabeko kontratazioei dagokien dirulaguntzaren zenbatekoa borondatez itzuli ahal izango du, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari uko egin diola jakinaraziz. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak dagokion ordainketa-gutuna emango dio erakundeari, laguntza itzul dezan, bai eta dirulaguntza ordaintzen denetik ukoa aurkezten den egunera arte dirulaguntzen arloan aplikatu daitezkeen berandutze-interesak ere.

6.– Kontratuak Contrat@ aplikazioaren bidez jakinarazi beharko dira, kontratua hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan, eta identifikazio hau izan beharko dute, aplikazioan ezarritakoaren arabera: «Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa».

11. artikulua.– Kontratua azkentzea.

Diruz lagundutako lan-kontratuak dirulaguntzaren epealdia amaitu aurretik azkentzen badira, horren berri eman beharko zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari, 7 eguneko epean, kontratua azkentzen denetik hasita, eta azkendutako kontratuaren kontura jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, osorik. Halaber, dagokion prozedura izapidetuko da, 17. eta 18. artikuluek arautzen dituzten jarraibideak beteta. Nolanahi ere, kontratua azkentzeko arrazoia probaldia ez gainditzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izan baldin bada, lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Diruz lagundutako lan-kontratua aurretiaz azkendu ondoren, enpresak beste pertsona bat edo batzuk kontratatu nahi baditu, beste dirulaguntza-eskabide bat aurkeztu beharko du, deialdi honekin xedatutakoaren arabera, 7.2 artikuluan ezarritako epearen barruan.

12. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Kontratazioak amaitu eta bi hilabeteko epearen barruan, dirulaguntzen entitate onuradunak diruz lagundutako jarduketan eta izandako gastuen justifikazioa aurkeztu beharko du, uztailearen

21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Dirulaguntzen Lege Orokorren Erregelamenduaren 69. artikuluetan eta 76. artikulutik 79. artikulura ezarritako moduluen erregimenaren bidez.

Justifikazio horretan, entitate onuradunak aurkeztu beharreko dokumentazio hau jasoko da:

a) Jarduketa-memoria, dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Egin diren jarduerak eta lortutako emaitzak jasoko ditu. Memoriak hau jasoko du:

1) Kontratutako parte-hartzaileek egindako jarduketak, baita, 4.3 artikuluan d) letran adierazitako betekizuna betetzeko, entitate onuradunak egindakoak. Hauek zehaztu beharko dira: kompetentzia eta enplegu berdeetan parte hartu dutenen kopurua eta ehunekoa, eta kompetentzia eta enplegu digitaletan parte hartu dutenen kopurua eta ehunekoa.

2) Kontratutako pertsonen azken aukeraketarako aplikatutako irizpideak, 10.3 artikuluan ezarritakoarekin bat.

3) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) betetzen dela egiaztatzeko aurrez ikusitako mekanismoak eta printzipio horren ezarpena bermatzeko neurri zuzentzaileak.

b) Memoria ekonomikoa, egindako jardueren kostua justifikatzeko, lortutako emaitzen arabera. Alderdi hauek jasoko ditu, gutxienez:

1) Onuradunaren egiaztapena edo adierazpena modulutzat jotako unitate fisikoen kopuruari dagokionez, 5. artikuluan xedatutakoarekin bat. Horretarako, kontratatutako pertsonak dagokien Gizarte Segurantzako kotizazio-taldearen arabera eta kontratatuta egon diren hilabeteen arabera zehaztuko dira, 5. artikuluan zehaztutakoa kontuan hartuta.

2) Jarduketa-memorian kuantifikatutako jarduerak eta 5. artikuluan ezarritako moduak oinarritzat hartuta kalkulaturako dirulaguntzaren zenbateko osoa, artikuluan horretan ezarritako kostu unitarioen bidezko kalkulurako eta kuantifikaziorako sistemaren arabera.

Dirulaguntzaren likidazioa proiektuan kontratatutako pertsonen arabera egingo da, kontratatuta egon diren hilabete bakoitzeko. Likidazioak ez du inola ere gaindituko hasieran emandako dirulaguntzaren zenbatekoa. Kalkulua egiteko, kontuan hartuko da kontratatutako pertsonen kopurua, kontratatuta egon diren hilabete bakoitza eta dagokien modulua, Gizarte Segurtasunaren kotizazio-taldearen arabera.

3) Diruz lagundutako jarduera finantzatu duten beste diru-sarrera eta dirulaguntza batzuen zerrenda, zenbatekoa eta jatorria adierazita.

2.– Entitate onuradunek frogagiriak eta finantzaketari dagokion gainerako dokumentazioa, 5 urtez gorde beharko dituzte, baita erregistroak eta dokumentuak ere, dirulaguntza ordaintzen denetik aurrera, edo, bestela, dirulaguntzaren zenbatekoa 60.000 eurotik beherakoa bada, hiru urtez. Formatu elektronikoa gorde beharko dira, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluen uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (Finantza Erregelamendua) 132. artikuluan ezarritakoa bete beharko dute gordetzeko.

3.– Dokumentazioa ez bada aurkezten araututako epean, edo aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzen bada justifikatutako kopurua aurrerakin gisa jasotakoa baino txikiagoa dela, itzul-keta-prozedura abiaraziko da, 18. artikuluan arautzen den prozedurari jarraituz.

13. artikulua.– Entitate onuradunen betebeharrak.

Entitate onuradunen betebeharrak dira Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. eta 46. artikuluetan eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikuluan orokorrean ezarritakoak eta deialdian eta urriaren 24ko TES/1152/2021 Aginduan ezarritako bereziak, eta, bereziki, honako hauek:

- a) Enplegu-eskaintzak kudeatzeko eskabideak aurkeztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan.
 - b) Kontratuaren hasieraren berri ematea azken kontratua hasi eta hamabost egun balioduneko epearen barruan, kontratatutako langabetuen kopurua zehaztuta.
 - c) Frogatu behar dute laguntza emateko eta hura baliatzeko bide eman duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela eta jarduera gauzatzen dutela.
 - d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea kontratuaren azkentzeak, 11. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - e) Xede bererako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideren bat jasoz gero, kostu beraren gaineko finantzaketa bikoitza izan gabe, estatuko edo nazioarteko beste edozein administrazio edo erakunde publikotatik datozenak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.
 - f) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa edo subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari jakinaraztea.
 - g) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak eta sozietate publikoak emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi, eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura jakinaraztea.
 - h) Honako hauen egiaztatze-jarduketegi baiezkoa ematea: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua, Lan eta Enplegu Saila, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoa, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa eta Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritza. Era berean, Estatuaren Kontu-hartzailetza Nagusiari dagozkion finantza-kontrolen jarduketegi, eta Kontuen Auzitegiaren legerian aurreikusitakoei, bai eta honako hauei ere: Europako Erkidegoetako Batzordea eta Kontuen Auzitegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF), Auditoriako Bulego Nazionala, eta, hala dagokionean, Europako Fiskaltza.
- Halaber, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planerako ezartzen diren jarraipen, kontrol eta ebaluazioa egitea, baita, informazioaren eta publikotasunaren arloan, kontrol, egiaztapen, jarraipen eta ebaluazioaren arloan, barne-araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoarako ezartzen dituzten betebeharrak betetzea, nahitaez betetzekoak direnean.
- i) «Kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa («do no significant harm–DNSH» printzipioa) eta etiketatze klimatiko eta digitala erabat betetzen direla bermatzea, eta betetzen direla egiaztatzeko mekanismoak eta mekanismo horien ezarpena bermatzeko neurri zuzentzaileak aurreikustea.
 - j) Jasotako dirulaguntzaren aplikazioan iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko neurriak hartzea.

k) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorreko betebeharrak:

- Emakumeen eta gizonen arteko tratu- edo aukera-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa aplikatzea bermatuko da probetan edo elkarrizketetan eta pertsonak aukeratzeko prozesuetan.
- Zer hautagai aukeratu erabaki behar denean, gutxienez emakume batek parte hartu behar du erabakia hartzeko prozesuan. Ezinezkoa bada, justifikatu egin behar da.
- Dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rolen eta genero-identitatearen pluraltasuna sustatzen dutenak.

14. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan araututako dirulaguntzak bateragarriak dira kontzeptu eta helburu bererako beste administrazio edo entitate publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin. Edonola ere, argi identifikatuta geratu beharko da gastuen trazabilitatea, eta laguntzen eta dirulaguntzen batura ezin izango da izan diruz lagundutako gastuen kostua baino handiagoa.

Hala ere, deialdi honen babesean emandako dirulaguntzak bateraezinak dira Europar Batasunaren funtsekin finantzatutako beste laguntza batzuekin, gastu berberak finantzatzeko badira.

15. artikulua.– Identifikazioa eta publikotasuna.

Deialdi honen babesean diruz lagundutako jarduketak eta jarduketa horiek eta administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa direla-eta egiten den publizitate guztia behar bezala identifikatuta egon beharko dira, Estatuako araudiak eta Europar Batasunak Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismorako ezartzen dituzten informazioaren, komunikazioaren eta publikotasunaren arloko betebeharrekin bat etorrira.

Ildo horretan, dirulaguntza hauek jasotzen dituzten entitateek finantzaketa horren jatorriaren berri eman beharko dute jarduketan publizitatean, eta ikusteko moduan egiten dela bermatu beharko dute. Hala dagokionean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren logoaren identifikazio grafikoaz gainera, Europar Batasunaren ikurra eta finantzaketa-adierazpen egoki bat txertatuko dute, non hau adierazi behar baita: «Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatuta». Helbide honetan eskuratu ahal dira elementu horiek: <https://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual> Bereziki agerikoa izan beharko da ekin-tzak eta emaitzak sustatzen direnean, eta informazio koherentea eta eraginkorra eman beharko da, hartzaille ugarirentzako, komunikabideak eta herritarrak barne direla.

16. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

1.– Dirulaguntzak emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako dirulaguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eusten bazaie, eta horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak betetzen badira.

Emakida-ebazpena eman ondoren, onuradunak dirulaguntza aldatzeko eskatu ahal izango du. Aldaketa hori eskatzeko, ebazpena eman ondoren eta diruz lagundutako jarduera egiteko epearen barruan gertatutako inguruabarrak izango dira oinarri, eta entitate onuradun bakoitzarentzat eskatu

beharko da. Eskaera inguruabarra gertatu eta berehala formalizatu beharko da, eta, edonola ere, jarduera egiteko epe hori amaitu baino lehen. Aldaketak ezin die inola ere eragin Erkidegoko araudiak edo Estatukoak ezarritako betebeharrei, bereziki Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren 2021eko uztailaren 13ko exekuzio-erabakian (Council Implementing Decision-CID) ezarritako mugarrak edo helburuak edo egiteko epea ez betetzea badakar.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak ebazpena eman beharko du aldaketa onartzeko edo ukatzeko, eskaera egin eta bi hilabeteko epearen barruan. Epe hori igaro ondoren ebazpen espresurik jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsizat jo ahal izango da. Ebazpen horien bidez, aldatzeko eskabidea aurkezten den unera eramán ahal izango dituzte ondorioak. Nolanahi ere, aldaketa egiteko baimena soilik eman ahal izango da hirugarrenei kalterik eragiten ez badie.

2.– Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedura hasiko da.

17. artikulua.– Ez-betetzeak.

Deialdi honetako dirulaguntzen entitate onuradunek ez badituzte betetzen oro har ezarri zaizkien betebeharrak (Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikulua, eta azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 50.2 artikulua), edo deialdi honetan berariaz ezarri zaizkienak, edo azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 37. artikuluan eta Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren 53.1 artikuluan adierazitako dirulaguntza itzultzeko kasuren batean sartzen badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Laneratzea Aktibatze zuzendariak ordaintzeke dagoen dirua jasotzeko eskubidea galdu dela erabakiko du, dagokion ebazpenaren bidez, eta Euskadiko Ogasun Nagusiari jasotako kopuruak eta dirulaguntza ordaindu zenetik itzulketaren bidez kotasuna erabakitzen den egunera arte, edo zordunak itzulketa sartzen duen egunera arte, hori baino lehenagokoa bada, sortutako dirulaguntzen arloan aplika daitezkeen berandutze-interesak itzuli behar zaizkiola xedatu ere, bidezkoak diren bestelako ekintzak eragotzi gabe, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan horretarako ezarritako prozedurari jarraikiz (698/1991 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezarri ziren).

Zenbateko horiek diru-sarrera publikotzat joko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta aipatutako Euskadiko Ogasun Orokorreko Printzipio Ordenatzaileen Legearen testu bateginaren 64. artikuluan aurreikusitako erantzukizun-araubidea jarraituko da.

Ez-betetze partzialen kasuan, hasieran aurrez ikusitako eperako kontratatze betebeharra edo ezarritako eran kontratatze betebeharra ez bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze Zuzendaritzak zehaztuko du entitate onuradunak itzuli beharreko kopurua, proportzionaltasun-printzipioa aplikatuta, justifikatutako kostuen eta egiaztatutako jarduketan arabera, zenbatekoa osorik itzuli behar denean salbu.

18. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako ez-betetzereen bat gertatzen baldin bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatze zuzendariak entitate interesdunari jakinaraziko dio

itzultzeko prozedura hasi dela, eta zergatik hasi den, eta 15 eguneko epea emango dio egokitzen jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan.

2.– Alegazioak jasotakoan, edo, horrelakorik aurkeztu ez bada ere, epea igarotakoan, prozedura amaituko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeke zuzendariaren ebazpen baten bidez. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez 12 hilabeteko epean ebatzi beharko da.

3.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak ez-betetzereen bat izan dela adierazten baldin badu, bertan deklaratu da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela, eta ezarriko da, hala badagokio, dagozkion zenbatekoak EAEko Diruzaintza Nagusiari itzultzeko betebeharra; itzultzeko epea bi hilekoa izango da ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Borondatezko alditzat joko da epe hori.

4.– Borondatezko epe horretan dirulaguntza itzultzen ez bada, dirulaguntza premiamendu-bidetik berreskuratzeko izapideak hasiko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamenduan ezarritakoaren arabera zorraren konpentsazioa aplikatu behar denean izan ezik.

19. artikulua.– Datuak babesteari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak bi xedapen hauen arabera jokatuko du: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (EB 2016/679 Erregelamendua) eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortutako datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna LANBIDE da, eta haren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra pertsegitzea eta datuak estatistiketarako erabiltzea ere. Lortzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei jakinarazi ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek eskubidea dute beren datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko, bai eta tratamenduaren aurka egiteko eta tratamendua mugatzeko ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali behar dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzura (Jose Atxotegi kalea 1, 01009 Vitoria-Gasteiz).

Datuen babesari buruzko informazio gehiago dago hemen: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/065100-cap1-eu.shtml>

20. artikulua.– Aplikatu beharreko araudia.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzei «administrazio publikoetan lehen lanbide-espe-rientzia izateko programa» finantzatzeko dirulaguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituen urriaren 24ko TES/1152/2021 Aginduan xedatutakoa aplikatuko da, baita dirulaguntzei buruzko araudi orokorra ezartzen duten arau hauek ere: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen Erregelamendua (uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen); azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bateginaren VI. titulua eta VII. tituluko III. kapitulua eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua, zeinak arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargura ematen diren dirulaguntzen bermei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra eta horien kudeaketan parte hartzen duten entitate laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak.

2021eko abenduaren 31, ostirala

Halaber, laguntzen programa honi hauek ere aplikatuko zaizkio: 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, zeinaren bidez onartzen baitira presazko neurriak Administrazio Publikoa Modernizatzeko eta Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzeko; HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen baita; TES/897/2021 Agindua, abuztuaren 19koa, zeinaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez finantzatutako zenbait kreditu banatzen baitira lurraldean, 2021eko ekitaldi ekonomikorako, autonomia-erkidegoak kudea ditzaten; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamendua eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamendua («Finantza Erregelamendua»).

2021eko abenduaren 31, ostirala



I. ERANSKINA

(EB) 2020/852 ERREGELAMENDUAREN 17. ARTIKULUARI DAGOKIONEZ, INGURUMENENKO SEI HELBURUEI «KALTE ESANGURATSURIK EZ ERAGITEKO» PRINTZIOPIOA BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA¹

Jarduketaren identifikazioa	Administrazio publikoetan lehen lanbide-esperientzia izateko programa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren esparruan, Euskal Autonomia Erkidegoan.
Jarduerari dagokion STEPeko osagaia	23. osagaia: Lan-merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak
Jarduerari dagokion STEPeko osagaiaren neurria (erreforma edo inbertsioa). Hala badagokio, azpineurria adierazi behar da	C23.I1
STEPeko neurriari (erreforma edo inbertsioa) edo, hala badagokio, azpineurriari esleitutako etiketatze klimatikoa eta ingurumenekoa (VI. eranskina, 2021/241 Erregelamendua)	Etiketak: 01-Konpetentzia eta enplegu berdeetarako ekarpena (% 100) Ehuneko berdea: % 20

Izen-abizenak	
IFZ	
Bere izenean edo entitate honen ordezkari gisa	
Entitatearen IFK	
Honako zeregin hau betez	
Harremanetarako datuak (helbidea, telefonoa, e-maila)	

¹ Guía para el diseño y desarrollo de actuaciones acordes con el principio de no causar un perjuicio significativo al medio ambiente agirian jasotakoaren arabera prestatutako adierazpen-eredua
https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion-transformacion-resiliencia/transicion-verde/guiadnshmitecov20_tcm30-528436.pdf III. eranskina.

2021eko abenduaren 31, ostirala



HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

Goian adierazitako jarduketa dela-eta, eskabidea aurkeztu duela proiektu honetarako:

eta proiektu horrek baldintza hauek betetzen dituela:

A. Ingurumenari dagokionez jasangarriak diren jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema (edo «taxonomia») baten bidez, inbertsio jasangarriak ahalbidezeko esparru baten ezarpenari buruzko (EB) 2020/852 Erregelamenduaren 17. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira, proiektuan garatutako jarduerak ez diote kalte esanguratsurik eragiten ingurumeneko helburu hauei:

1. **Klima-aldaketa arintzea.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketa arintzeko helburuari, berotegi-efektuko gasen (BEG) isuri handiak eragiten baditu.
2. **Egokitzapena klima-aldaketara.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio klima-aldaketara moldatzeko helburuari, oraingo baldintza klimatikoaren eta etorkizunerako aurrez ikusitako onorio txarrak areagotzen baditu, bai jarduerari dagokionez, bai pertsoneri, naturari edo aktiboeri dagokienez.
3. **Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesia.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten die baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera eta babes jasangarriari, kaltea eragiten badie ur-masen –azaleko urak eta lur azpikoak– egoera onari edo potentzial ekologiko onari eta itsas uren egoera ekologiko onari.
4. **Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio ekonomia zirkularri –hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne– kasu hauetan: eraginkortasunik eza ugari eragiten baditu materialen erabileran edo baliabide naturalen zuzeneko edo zeharkako erabileran; hondakinen sorrera, errausketa edo ezabaketa modu nabarmenean areagotzen baditu, edo hondakinen epe luzerako ezabaketak kalte esanguratsua eta epe luzerakoa eragiten badio ingurumenari.
5. **Atmosferaren, uraren edo lurzoruen kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten die kutsaduraren prebentzioari eta kontrolari, nabarmen areagotzen badu atmosferara, uretara edo lurzorura isuritako kutsatzaileen kopurua.
6. **Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesia eta leheneratzea.** Jarduera batek kalte esanguratsua eragiten dio biodibertsitatearen eta ekosistemen babesari eta leheneratzeari, kalte egiten badie ekosistemen baldintza onei eta erresilientziari edo kalte egiten badio habitat eta espezieen kontserbazio-egoerari, bereziki Batasunak interesekotzat jotako kontserbazio-egoerari.

B. Garatutako jarduerak ez daude baztertuta planaren finantzaketatik, «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioari buruzko gida teknikoarekin bat etorrira, hauek direla bide: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko (2021/C 58/01) Erregelamendua, Espainiako suspertze eta erresilientzia planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren exekuzio-erabakiaren proposamena eta dagokion eranskina:

1. Petrolio gordinaren findegien eraikuntza, ikatza erabiltzen duten zentral termikoak eta petrolio edo gas naturala erauztea dakarten proiektuak, kalte egiten baitiote klima-aldaketa arintzeko helburuari.

2021eko abenduaren 31, ostirala



2. Erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, erregai horien geroko erabilera barne, salbu eta, elektrizitatea eta/edo beroa sortzeko, gas naturala erabiltzen duten proiektuak eta garraio-azpiegiturarekin eta lotutako banaketarekin zerikusia dutenak, Europako Batzordearen Gida Teknikoaren III. eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

3. Emisio-eskubideen salerosketa-araubidearen (RCDE) esparruko jarduerak eta aktiboak, aurreikuspenen arabera, eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen isuriak erreferentziako parametroen azpitik egongo ez badira. Diruz lagundutako jarduerak eragindako berotegi-efektuko gasen isuriak erreferentziako parametroak baino nabarmen txikiagoak izango ez direla aurreikusten bada, inguruabar horren azalpen arrazoitua eman beharko da.

4. RCDEren zeharkako kostuen konpentsazioa.

5. Hondakinen zabortegiekin eta erraustegiekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak ez diren hondakin arriskutsuen tratamendua baino egiten ez duten instalazioetan eta aurretiaz dauden instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada energia-efizientzia areagotzea, ihes-gasak harrapatzea biltegitatu edo erabiltzeko, edo errausketaren errautsetako materialak berreskuratzea, betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.

6. Tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioekin lotutako jarduerak. Salbuespen hau ez zaie ezartzen birziklagarriak aurretiaz dauden tratamendu mekaniko-biologikorako instalazioetan egiten diren ekintzei, haien helburua bada instalazioen energia-efizientzia areagotzea edo hondakin bereziak birziklatzeko eragiketarako berregokitzea (adibidez, konpostatzeko eta biohondakinen digestio anaerobiorako), betiere ekintza horiek ez badute eragiten instalazioetan hondakinen tratamendu-ahalmena areagotzea edo haien balio-bizitza luzatzea. Inguruabar horiek dokumentu bidez justifikatu beharko dira, instalazio bakoitzeko.

7. Jarduerak zeinetan hondakinen epe luzerako ezabaketak kaltea eragin baitiezaioke ingurumenari.

C. Garatutako jarduerak ez daukate zuzeneko ondoriorik ingurumenean, ezta zeharkako ondorio primarioak ere haien bizi-ziklo osoan zehar. Halakotzat jotzen dira amaitu ondoren, jarduera egin eta gero, agertu ahal direnak.

Adierazpen honetan ezarritako betekizunetako bat betetzen ez bada, itzuli egin beharko dira jasotako kopuruak eta dagozkien berandutze-interesak.

.....,(e)koaren (e)(a).

Sinadura

2021eko abenduaren 31, ostirala



II. ERANSKINA

KONTROL-ESKUMENAK BERMATZEKO, ESKUBIDEAK ETA SARBIDEAK EMATEKO KONPROMISOA

..... jauna/andrea (NAN zk.:)
 entitateko (IFZ:; zerga-egoitza:
 ordezkarri eta
 gisa, eta, STEPeko baliabideen bidez finantzaturako laguntzen onuradun den heinean, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaien definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketan garapenean, adierazten du ordezkatzen duen entitateak konpromisoa hartzen duela eskubideak eta sarbideak emateko, Batzordeak, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Europako Kontuen Auzitegiak, Europako Fiskaltzak eta estatuko agintari eskudunek dagozkien kontrol-eskumenak betetzeko aukera dutela bermatzeko, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.2.e) artikuluan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko (EB, Euratom) 2018/1046 Erregelamenduaren («Finantza Erregelamendua») 129.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:



2021eko abenduaren 31, ostirala



III. ERANSKINA

DATUEN LAGAPENARI ETA TRATAMENDUARI BURUZKO ADIERAZPENA, SUSPERTZE,
TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN (STEP) BARRUKO JARDUKETAK
EGITEARI DAGOKIONEZ

..... jauna/andrea (NAN zk.:)
..... entitateko (IFZ:;
zerga-egoitza:)
ordezkari eta gisa, eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako
laguntzen onuradun den heinean, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika
publiko berriak» deritzon 23. osagaien definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketan
garapenean, adierazten du ezagutzen duela aplikatu beharreko araudia, eta, bereziki, Suspertze eta
Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko
otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22. artikulua apartatu hauek:

1.– 2. apartatuko d) letra: «Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-
proiektuak egitera bideratutako neurriei dagokienez, funtsen erabileraren auditoria eta kontrola egiteko,
datu hauen kategoria harmonizatuak biltzea, bilaketak egiteko aukera ematen duen formatu
elektronikoan, eta datu-base bakarrean:

I.– Funtsen azken hartzailearen izena;

II.– Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzailea
bada Batasuneko edo estatuko kontratazio publikoaren arloko zuzenbidearekin bat etorrira;

III.– Funtsen hartzailearen edo kontratataren benetako titularren izen-abizenak eta jaiotza-datak,
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2015/849 Zuzentarauaren 3. artikulua 6. puntuan
definitutakoaren arabera;

IV.– Suspertze eta erresilientzia planaren barruan erreformak eta inbertsio-proiektuak egitera
bideratutako neurrien zerrenda, neurri horien finantzaketa publikoaren zenbateko osoarekin batera.
Mekanismoaren esparruan ordaindutako funtsen eta Batasuneko beste funts batzuen zenbatekoa
zehaztu behar da».

2.– 3. apartatua: «Artikulu honen 2. apartatuaren d) letran aipatutako datu pertsonalak Batasuneko
estatuak eta Batzordeak baino ez dituzte tratatuko, aurrekontu-kudeaketa onartzeko auditoriaren eta
15. artikulua 2. apartatua eta 23. artikulua 1. apartatua aipatutako akordioaren aplikazioarekin
lotutako funtsen erabilerarekin zerikusia duten kontrol-prozeduren ondorioetarako, eta auditoriak edo
prozedurek dirauten denboran. Batzordearen kudeaketa onartzeko prozeduraren barruan, EBFTren
319. artikuluaekin bat etorrira, Mekanismoak txostenak aurkeztu beharko ditu Finantza
Erregelamenduaren 247. artikuluan jasotako finantzei eta kontu-emateari buruzko informazio
integratuaren esparruan, eta, zehazki, bereizita, kudeaketari eta etekinari buruzko urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoa dela bide, adierazten du baimena ematen duela datuak lagatzeko eta
tratatzeke, aipatutako artikuluetan berariaz jasotako xedeetarako.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:



2021eko abenduaren 31, ostirala



IV. ERANSKINA

SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANEAN (STEP) EZARRITAKO
ZEHARKAKO PRINTZIPIOAK BETETZEARI BURUZKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

..... jauna/andrea (NAN zk.:)
 entitateko (IFZ:; zerga-egoitza:
) ordezkari eta
 gisa, eta, STEPeko baliabideen bidez finantzatutako laguntzen onuradun den heinean, «Lan merkatu dinamiko, erresiliente eta inklusibo baterako politika publiko berriak» deritzon 23. osagaian definitutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren jarduketaren garapenean, adierazten du ordezkatzeko duen entitateak konpromisoa hartu duela estandar zorrotzenak aintzat hartzeko arau juridikoak, etikoak eta moralak betetzeari dagokionez. Horretarako, beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitu eta detektatzeko eta, ez-betetzetik hautemanen gero, haien berri emango die agintari eskudunei.

Osagarri gisa, STEPen edukia kontuan hartuta, konpromisoa hartzen du ekonomia zirkularraren printzipioa errespetatzeko eta ingurumenean inpaktu negatibo esanguratsuak saihesteko («do no significant harm» printzipioaren ingelesezko siglak: «DNSH»), plan horren barruan egiten diren jarduketetan. Halaber, adierazten du ez duela finantzaketa bikoitzik eta, duen informazioaren arabera, ez dagoela bateraezintasun-arriskurik Estatuko laguntza-araubidea dela eta.

....., 2022koarena.

Sin.

Kargua:

